

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gizartean gaur egun oraindik, emakumeenganako indarkeria kasuak ematen dira. Egunero entzuten dugu erasoren bat komunikabideetan, eta horrek emakumeengan beldurra eragiten du. Kanean zein etxean sentitzen dugun beldur horri aurre egiteko asmoz sortu ditugu objektu ezberdin batzuk. Gure helburua beraz, arriskuan egon daitezkeen pertsonak laguntzean datza.

Objektu ezberdinek, gure segurtasuna handitzeko helburua dute, eraso baten aurrean gure burua defendatu ahal izateko aukera bat ematen digutelako. Ez dugu eraso egiteko asmoarekin bat egiten, baizik eta gure segurtasuna handitzeko ideia zabaldu nahi dugu. Gainera, konfiantzarako osagarriak izango diren autodefentsa zein bestelako tailer ezberdinak ere eskainiko ditugu.